

8. GAIA. Migrazio mugimenduak

- 8.1- Migrazio fenomenoan definizio kontzeptuala
- 8.2- Migrazio ereduak, eragileak eta ondorioak
- 8.3- Migrazioen analisi tresnak: zuzenak eta zeharkakoak
- 8.4- Migrazio mugimenduen motak

8.1- Migrazio fenomenoan definizio kontzeptuala

- Migrazio batek *ohiko egoitzaren aldaketa bat* ekarri behar du, denbora une konkretu baten barruan.
 - Ohiko egoitzaren aldaketa
 - Geografi mugen gurutzapena
- Definizioaren zailtasuna:
 - Denborazko dimentsioa: beharrezkoa da denbora epe batean geratzea egoitza berrian.
 - Dimentsio espaziala: beharrezkoa da lurraldea tokibanatuta egotea (mugabarru administratiboen bidez edo beste modu batean). Beharrezkoa da muga edo limite bat izatea eremuen artean.

Migrazioarekin lotuta dauden kontzeptuak

- Migraria: ohiko egoitzaz aldatzen den edozein pertsona.
- Joalea: bere aurreko ohiko egoitza erreferentziazat hartuz migratzen duen edozein pertsona.
- Etorkina: egungo egoitza erreferentziazat hartuz migratzen duen edozein pertsona.
- Migrazio Garbia edo Saldo Migraria: joale eta etorkinen arteko diferentzia, denbora epe zehatz batean.
- Migrazio Gordina: populazio baten eman diren sarrera eta irteera guztien batuketa; eskualde baten barruan emandako mugimendu migratzaile guztiak.

Migrazioarekin lotuta dauden kontzeptuak

- Erakarren zona: migrazio garbi positiboa duen eskualdea. Etorkinen kopurua joaleen kopurua baino handiagoa da.
- Egozketa zona: migrazio garbi negatiboa duen eskualdea: joaleen kopurua etorkinena baino handiagoa da.
- Jatorri tokia: migratzailearen aurreko ohiko egoitza lekua.
- Heldulekua: migratzailearen egungo ohiko egoitza lekua.

8.2- Migrazio eragileak eta ondorioak

- Migrazio gertatzeko arrazoi boteretsua izan behar du migratzaileak.
 - Egozketa eragileak: jatorri tokiaren baldintza negatiboengatik.
 - Erakarpen eragileak: heldulekuaren baldintza positiboengatik.
- Kausak anitzak eta migrazio motaren arabera dira:
 - Bizi baldintzak hobekuntza bilatzea.
 - Eskualdeen arteko edo eskualde barneko errenta desberdintasunak.
 - Lan eta migrazio politikak bai jatorri herrialdeetan baita helmugako herrialdeetan ere.
 - Ingurugiroaren hondaketa.
 - Gatazka politikoak.
 - Profesionalen exodoa.

Migrazio ondorioak

- Hazkunde demografikoarenganako eragin nabarmena du.
- Ondorioak desberdinak dira jatorrizko tokietan eta helmugako tokietan.
- Migratzaileengan eragiten diren ondorioak ere kontuan hartu behar dira.
- Arrazoi ekonomiak nagusitzen dira, hortaz:
 - Osagai dagokienez, migrazio mugimenduak diskriminatzaileak dira.
 - Gazte-helduek arrakasta ekonomikoa izateko aukera gehiago dute.

Migrazio ondorioak

- Jatorrizko tokian:
 - Populazioaren zahartzea.
 - Ugalketaren gaitasunaren galtzea eta jaiokuntzaren murriztea.
 - Hilkortasunaren igotzea.
 - Berezko hazkundearen txikitzea.
 - Produktibitate-gaitasunaren galtzea.
 - Lan-egituraren aldaketak.
 - Gazteen galtzea.
 - Diru sarrerak

Migrazio ondorioak

- Helmugako tokietan:
 - Ugalkortasunaren igotzea.
 - Zahartze prozesua gelditzea.
 - Hazkundera.
 - Jardueraren egituraren aldaketak.
 - Tokiko populazioaren hobekuntza soziala.
 - Ekipamendu eta zerbitzu berrien beharra → horien garestitzea.

Migrazio ondorioak

- Migratzaileentzat:
 - Diskriminazioa.
 - Bizi-maila hobetzea.
 - Aukera gehiago beren seme-alabentzat.

8.3- Migrazioen analisi tresnak: zuzenak eta zeharkakoak

- Migrazio neurketa
 - Hiru alor funtsezkoen buruzko datuak behar dira migrazioaren azterketa on bat egiteko:
 - Egungo egoitza
 - Jaiolekua
 - Aurreko egoitza
 - Neurketa ez-zuzenak → Migrazio saldoa edo migrazio garbia:

Migrazio saldoa = hazkunde erreala – berezko hazkundera

Migrazio neurketa zuzenak

- Migrazio tasa garbia (MTg)

$$MTG_t = \frac{I_t - E_t}{P_{t/06/30}} \times 1000$$

- Emigrazio tasa gordina (ETG)

$$ETG_t = \frac{E_t}{P_{t/06/30}} \times 1000$$

Migrazio neurketa zuzenak

- Erakarpen indizea edo Inmigrazio tasa gordina (ITG)

$$ITG_t = \frac{I_t}{P_{t/06/30}} \times 1000$$

- Migrazio Tasa Totala (MTT)

$$MTT_t = ETG_t + ITG_t$$

Migrazio neurketa zuzenak

- Adinkako Tasa Espezifikoak (MTE):

$$MTE_{t,x} = \frac{m_{t,x}}{P_{t/06/30}} \times 1000$$

Migrazio neurketa

- Migrazioaren Indize Trinkoa:
→ Adinkako Migrazio Tasen batuketa

$$MIT = \sum_{t=0}^{\omega} m_{t,x}$$

Oharra: Migrazio tasa espezifikoak bost urteko talderako kalkulatu egin dira, batuketa biderkatu behar da bost urteagandik. Sexuka ere kalkulatu ahal da.

8.4- Migrazio motak

- Jatorri lekua eta heldulekuaren ezaugarrien arabera migrazio mota desberdin batzuk bereiztu daitezke:
 - Internazionalak
 - Barnekoak
 - Landa-Landa
 - Landa-Hiri
 - Hiri-Hiri
 - Hiri-Landa

Migrazio motak

- Internazionalak:
 - Emigranteek egoitza herrialdez aldatzen direnean.
 - Arrazoi ekonomiko eta politikoetan oinarritzen dira.
 - Adinkako aldagarritasun maila handia erakusten dute:
 - Emigranteak pertsona gazteak edota helduak izaten dira.
 - Ondorioz heldulekuetan populazioa birgaztetu egiten dira, partzialki bada ere.

Migrazio motak

- Migrazio Internazionalak era guztietako aldaketa arinak edo larriak sor litzake etorkinengan:
 - Migrazioa aldameneko herrialdeen artean (hizkuntz berdina, kultura ezaugarri eta erlijio-moral printzipio antzekoak), ematen bada, ondorioak samurragoak izaten dira.

Migrazio motak

- Barneko Migrazioak
 - Estatu barnean emandako mugimenduak
 - Ondorio ekonomiko handiak izaten ditu, batez ere. Kultural eta sozialak ere handiak izan daitezkeelarik.
 - Kausak gehienetan ekonomikoak edota bizitza baldintzak hobetzeko erabakiekin erlazionatzen dira: ogibide bila, diru-sarrera hobeak, ingurune atseginagoa, hezkuntza baldintza hobeak, etab...

Migrazio motak

- ✓ Herrialdeen arteko diferentziak orekatu ditzakete (populazio-baliabideen arteko doikuntza hobeko bat ahalbideratuz), baina beste askotan areagotzen dituzte (despopulazte, desinbertsioak, deslokalizazioa, zahartze dinamikak...)
- **Landa-Landa migrazioak:**
 - Oro har kausa laboralak izaten dute: nekazal eskuaren uztaroko desplazamenduak, meatzariena, edo bestelako baliabide naturalen ustiaketa inguruko lan desplazamenduak.
- **Landa-Hiri migrazioak:**
 - Landa espazioetatik hiritara bideratzen direnak
 - Lan alternatiba edo abagune hobeen bilakuntza.
 - Zergati batzuk: lan bilaketa, osasun zerbitzu hobekiago edo hezkuntza baldintzen hobekuntza.

Migrazio motak

- **Hiri-Hiri migrazioak**
 - Oro har hiri behartsuenetatik abagune ekonomiko hobea dituztenena bideratzen dira.
 - Aurreko eskeman aipatu diren kausak, errepika ditzakegu hemen.
- **Hiri-Landa migrazioak: arrazoiak**
 - Ekonomikoak: landa eta ekologi turismoari lotutako lanen bila.
 - Ingurunearen kalitatearen bila
 - Pentsionista edo jubilatuen jaioterri itzulia...